

## UDAL LOKALAK ERABILTZEA ETA LAGATZEA ARAUTZEN DUEN UDAL ERREGELAMENDUA.

### ARRAZOIEN AZALPENA

Etengabe hazten ari den herri honetan, udal lokalak erabiltzeko eskakizunak geroz eta ugariagoak dira; bi eskatzaile mota daude: batetik, haien eguneroko jarduna aurrera eramateko egoitza soziala behar duten elkarteak, eta bestetik, jarduera jakin bat egiteko behar dituzten elkarte zein norbanakoak.

Auzoak etengabe ari dira garatzen eta antolatzen egun, eta, beraz, konfigurazioaren eta dinamizazioaren funtsezko aspektutzat hartu behar dira bai horniduraren eraikuntza bai horren kokalekua. Hasierako helburua aisialdia zuten espazioak funtzio sozial eta herritar garrantzitsua betetzen duten eremu bihurtu dira, eta ondorioz, auzoaren baitan izaera jakin bat hartzeaz gainera, gaur egun modu esanguratsuan osatzen dute herriko espazio kolektiboa.

Ondorioz, beharrezkotzat jotzen dugu aipatutako lokalen erabilera eta lagapena, kasuan kasu, arautuko duen erregelamendua garatzea eta onestea.

Lokal Sozialen helburu nagusia da horiek kultura-, hezkuntza- eta sustapen-guneak izatea, horrela, Berangoko herritarren ongizate eta bizi kalitate soziala eta pertsonala hobetzeko baliabideak eskuratzeko. Asmo horrekin bat egiten ez duen edozein jarduera ezin izango da udal jabegoetan egin.

Araudi hori ezartzeko honako erregelamendu hau onesten da, Toki Erakundeei eman zitzaizen arautegi-ahalmena eta nork bere burua antolatzeko ahalmena betez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 4.2 artikuluan ezartzen den moduan.

### I. TITULUA.- XEDAPEN OROKORRAK

#### 1. ARTIKULUA.- XEDEA

Erregelamendu honen helburua da, batetik, interes publiko eta sozialaren mesedetan Udal honek egin ditzakeen udal lokalen lagapenak arautzea, eta bestetik, lagapen-hartzaileek lokal horiek nola erabili behar dituzten arautzea.

#### 2. ARTIKULUA.- LAGATZEKO HELBURUA

Erregelamendu honetan arautzen diren lagapenek eta erabilerek honako helburu hauek lortzeko asmoa izan behar dute:

- Elkarguneen eta herri eremuen erabilera partekatua ahalbidetzea, elkarteen eta herriko bizitzaren parte diren beste elementuen artean.

- Erraztasuna ematea elkarteek antolatzen dituzten kultura, informazio, trebakuntza, hezkuntza edota aisialdiarekin lotura duten programak eta zerbitzuak abian jartzeko.

- Egun lagapen horietarako erabilgarri dauden udal baliabideak optimizatzea. Udalak eta herriko kolektiboek partekatutako dituzten lokalak erabiltzea eskuragarri dauden udal lokalen optimizazioa ekarriko du.

#### 3. ARTIKULUA.- LAGAPEN MOTAK

Udaletxe honek lokalak lagatzeko bi modu eskainiko ditu:

- Esleipen administratibo bidez lokala epe jakin batez lagatzea, modu zuzenean eta dokumentu administratiboan.

- Alde baterako lagatzea, udal lokal bat une jakin batean erabiltzeko, jarduera zehatz bat edo gehiago egiteko.

#### 4. ARTIKULUA.- LOKALEN KOKAPENA

Erregelamendu honetan arautzen den lagaperako, Berango Antzokian helburu hori bera duten lokalak eskaintzen dira.

Udalak aldaketak egin ditzake elkarteek edota taldeek erabiltzeko eskuragarri dituzten lokalei eta horien esleipenari dagokienez, udalaren baliabideek eta interesek hala eskatzen dutenean. Horrelakoetan, indarrean dauden lagapen-hartzaileei jakinaraziko zaie.

## II. TITULUA.- ANTOLAKETA

### 5. ARTIKULUA.- ORGANO ERABAKITZAILEAK

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legean eta Toki Erakundearen antolaketa, funtzionamendua eta araubide juridikoa onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuan araututako eskuduntzak errespetatuz, Alkatetzak edo Zinegotzi ordezkariak kudeatuko eta erabakiko ditu baimenak emateko egin beharrekoak eta lokalen erabilerari buruzko beste kontsiderazioak, betiere Tokiko Gobernu Batzarrari edo Osoko Bilkurari dagozkien gaiak ez badira, kasu horretan organo erabakitzailea Bilkura bera izango baita, dagokion Informazio Batzordeak irizpena eman ondoren.

## III. TITULUA.- ESLEIPEN ADMINISTRATIBO BIDEZ LOKALA LAGATZEA

### 6. ARTIKULUA.- KONTZEPTUA

Elkarteen Udal Erregistroan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistroan ageri den edozein kultur edo kirol udal elkarte erabiltzeko udal lokal bat lagatzean datza, hiru urtez eta dohainik.

Erabilpen epea ezingo da luzatu, betiere araubide berezian ezarritakoa hautsi gabe.

Udalbatzak bertan behera utz dezake lagapena epemuga bukatu baino lehen, interes publikoari eragiten dion egoeraren bat gertatuko balitz.

Udalak ematen dituen lagapenek jabetza eskubidea gordeko dute, eta ez diote kalterik eragin behar hirugarren bati.

### 7. ARTIKULUA.- ONURADUNAK

Lagatze honen onuradunak Berangon egoitza duten udalerrri-mailako elkarteak izango dira, irabazi asmorik gabekoak, Elkarten Udal Erregistroan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkarten Erregistroan ageri direnak; gainera, horien jardunek helburu izan behar dute Berangoko herritarren ongizatea, egiten dituzten agerraldi orotan, eta horien jarduerak Berango herriaren onurarako izango dira zuzenean.

### 8. ARTIKULUA.- FORMALIZAZIOA

Lagapenean interesa duten herriko kultur eta kirol taldeei deialdia egingo zaie, erabilerari eta helburuei buruzko azalpen-memoria bat idatz dezaten, esanez zergatik den onuragarria jabari publikoa xede horrekin lagatzea, hala badagokio, esleitzeari ekin nahian.

Formalizazioa dokumentu administratibo bidez egingo da.

### 9. ARTIKULUA.- IRAUPENA

Lagatze honek hiru urteko iraupena izango du, dokumentu administratiboa sinatzen den egunetik hasita.

Udalbatzak bertan behera utz dezake lagapena epemuga bukatu baino lehen, kalte-ordainik gabe, interes publikoari dagokion egoeraren bat gertatuko balitz; kasu horretan, hilabete lehenago jakinaraziko zaio interesatuari.

Lagapena deuseztatu egingo da baldin eta adierazitako betebeharren bat betetzen ez bada. Hori gertatzen bada, deuseztatzea gertatu aurretik Udalak elkarteari hamabost eguneko epea emango dio, egoki irizten dituen alegazioak egin ahal izateko.

### 10. ARTIKULUA.- ELKARTE LAGAPEN-HARTZAILEAREN ESKUBIDEAK

Elkarte lagapen-hartzailearen eskubide nagusia lokala dohainik eta modu iraunkorrean erabiltzeko aukera izango da, egoitza sozial modura, elkarteak dituen helburuak aurrera eramateko.

### 11. ARTIKULUA.- ELKARTE LAGAPEN-HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK

Erakunde lagapen-hartzailearen betebeharrak, esleitutako lokalari dagokionez, hauek izango dira:

- Erabiltzen duen jabari eremua egoera onean izan behar du, baita lokalean egiten dituen aldaketak ere, hala egingo balu.

- Lagapen-hartzaileak Administrazioaren esku utzi behar ditu erabilitako ondasunak, libre eta hutsik, epearen barruan, eta Administrazioari aitortu behar dio jarduera bat adosteko eta horri ekiteko duen ahalmena.

- Dagokion kontratuan zehaztuko den ordutegiarekin bat eginez erabiliko dira lokalak, betiere Jendaurreko Ikuskizun eta Saillkatutako Jardueren Araubide Juridikoari buruzko urtarrilaren 8ko 1/1998 Legean ezarritakora mugatuz.

- Lokala zaindu eta mantentzea, jabea den Udalak zehaztutakoaren arabera eta bere gainbegiratupean. Elkarteen betebeharra da laga zaien lokala higiene-egoera onean izatea, eta behar besteko arreta jartzea erabiltzerako orduan, ez kaltetzeko, arriskuan ez jartzeko edo enbarazurik ez sortzeko gainontzeko lagapen-hartzaileei eta eraikin berean edo lokalaren inguruetan dauden etxebizitzetako eta lokaletako erabiltzaileei eta jabeei. Udalaren materiala erabiltzen duten taldeek inbentario zehatz bat egin beharko dute. Elkarreak bere gain hartuko ditu jardunak eragiten dituen gastuak (garbiketa, ura, energia elektrikoa, berogailua, konponketa...). Zerbitzu horiek Udalak kontratatuak badira, Udalak berak banatuko ditu elkarte onuradunen artean, lagatako lokalaren azaleraren arabera. Banaketa horrek sortutako gastuak ez ordaintzea lagapen hitzarmena bertan behera uztea dakar.

- Lagapena justifikatzen duten elkartearen helburuak lortzeko baino ez da lokala erabiliko.

- Elkarreak ezin izango dute lokaletan obrarik edo berrikuntzarik egin, edozein motakoak edo izaerakoak izanik ere, ezta fatxadan edo lokalaren barruan errotulurik edo objekturik jarri ere, baldin eta lehenago Udalaren baimen zehatza jaso ez bada, eta, horretarako, lokalean gertatu eta konpondu behar den edozein kalte eta hondatze Udalari jakinaraziko zaio segituan. Udalak hala eskatuz gero, lokalak jatorrizko itxura berreskuratzeko moduan berritu beharko dira. Udalak ez du zertan ordaindu lagapen-hartzaileek –Udalaren aurretiazko baimenarekin– lokaletan egiten dituzten hobekuntzek sortutako gastua.

- Elkarreak Udalari jakinarazi behar dio presidentetza edo zuzendaritza-batzordea edo kontratuan eragina izan dezakeen edozein estatutu-klausula aldatzen bada, eta erabakia hartu zen bileraren aktaren kopia emango dio.

- Udala askea da laga dituen lokaletan sartzeko, eta beti izango ditu horietara sartzeko giltzak.

- Udalak ez du lagatzen dituen lokaletan egiten diren jarduerak zuzentzen, eta ez die bere onespina ematen. Elkarreak ez dute inolako mendekotasuneko harremanik Udalarekiko, eta ez da Udalaren ardura, ez zuzenean ez modu ordezkatzailean, lokalaren barnean sor daitezkeen kalte material, pertsonal edota moralak.

- Elkarre bakoitzak aseguru-poliza bat kontratatuko du lagapenak irauten duen denbora guztirako; horrek estali behar ditu bai lapurreta, sutea edo delakoagatik hondatu daitezkeen lokaletako ondasunak, bai erantzukizun zibila, erabiltzaileek hirugarrengeoi eragin ahal dizkieten kalteak eta galerak direla eta. Lagatzen den lokal bakoitzarengatik gutxienezko estaldura bermatu beharko da, 60.000 euro ezbeharreko, hain zuzen.

- Elkarreak egunean izan behar dituzte zerga-betebeharrei dagozkien eginkizunak, baita zuzenbide publikoari eta gizarte-segurantzari dagozkien guztiak, eta Udalak emandako laguntzaren berri eman beharko dute.

- Partekatutako lokalei dagokienez, Berangoko Udalak erabilera-arau hauek ezartzen ditu:

Koordinatze Batzorde bat sortzea lokalaren erabilera bere gain hartzeko, elkarte bakoitzeko kide banak osatua, eta eginkizun hauek beteko dituen: erabilera egitaraua adostea eta zaintzeko eta garbitzeko kontrolaz arduratzea.

- Lokalak talde lagapen-hartzaileen barne bilerak eta lanak egiteko baino ez dira erabiliko, eta ezarritako helburu orokorrak errespetatuko dira uneoro. Lokalak ezingo dira askariak eta gisakoak egiteko erabili.

- Esleitutako lokalarekin bat etorriko da elkarreak bertan gordetzen duten materiala.

- Taldeek egiten dituzten barne jarduerak aipatutako lokalen segurtasunaren eta baldintza fisikoen mende egongo dira.

- Lokalak talde bakoitzeko kideek ez beste inork ezingo ditu erabili, eta ezingo da, halaber, bertan gorde taldeek euren jardunerako erabiltzen ez duten materialik, ezta eraikinari kalte egin diezaiokkeen gairik ere (produktu sukoiak, kasu).

- Honako jarduera hauek espresuki debekatzen dira:

1. Zehaztutako ordutegitik kanpo lokalean egotea.

2. Segurtasuna ez zaintzea; ezingo da 2 metro karratuko pertsona 1 baino gehiago lokalean egotea eskatzen duen jarduerarik egin, edo indarrean dagoen segurtasun araudia betetzen ez duen beste edozer. (Lagatzen diren lokalen edukiera zehazten duen zerrenda egingo da)

3. Gai arriskutsuak (produktu sukoiak kasu) erabiltzea edota biltegitratzea eskatzen duen jardueraren bat egitea, segurtasuna gorde nahian, betiere.

Lokaletan ezingo da Udalak lagatakoak ez diren beste altzaririk jarri, baldin eta aurretik Udalak horretarako baimena eman ez badu.

- Lokaletan ezingo dira egitura behin-behinekoak edo behin betikoak jarri, modu horretan lokal osoa edo horren zati bat erabilezin geratzen bada, baldin eta aurretik Udalak horretarako baimena eman ez badu.

- Talde lagapen-hartzaile bakoitzak lokalak erabiltzeko egutegia izango du, eta dagokien egun eta orduetara mugatu beharko dute haien jarduna; beraz, ezingo dira lokaletan azaldu beste taldeei dagozkien ordu eta egunetan. Ordutegi horiek lokal bakoitzaren iragarki oholean jarrita egongo dira.

- Erabat debekaturik dago edari alkoholoduna eta tabakoa biltegitratzea, saltzea edota kontsumitzea, oinarritzat hartzen baita batez ere adin gutxikoek erabiltzen dituzten lokalentzako indarrean dagoen araudia.

#### IV. TITULUA.- ALDI BATERAKO LAGATZEA

##### 12. ARTIKULUA.- KONTZEPTUA

Udal lokal bat erabiltzen uztean datza, une eta kasu jakin baterako, jarduera zehatz bat edo gehiago egin ahal izateko.

##### 13. ARTIKULUA.- ONURADUNAK

Herrian erroldatuta dauden pertsona fisiko edo juridikoen eskatu dezakete lagapen mota hau, herriko bizitzarekin zerikusia duten jarduera jakin batzuk aurrera eramateko lokal baten beharra badute.

Ezingo zaie lokala utzi irabazi asmoko erakundeek.

Ezingo dira lokalak utzi ez hirugarren pertsonen erabil ditzaten, ez talde edota elkarte batek sustatutako irabazi asmoa ezkutatzeko jarduerak egiteko, elkarte edota talderen batek frogatu beharrekoa. Egoera horietakoren bat ematen ari dela ondorioztatuko da baldin eta elkarrearen izaerarekin eta helburuekin bat ez datozen jarduerak ezkutatzeko badituzte. Hauek izango dira horren adierazle: jarduerak errepikatzea, ekonomikoki onura jaso dezaketen pertsonak etengabe berberak izatea, jarduera horren parte-hartzaile taldearen zabalera eskasa izatea edota taldearen zein elkarrearen izaerarekin eta helburuekin bat ez datozen jarduerak antolatzea; nolahi ere, kasuan kasuko balorazioa egingo da.

Lokalak lagatzerako orduan, eskaera hauek izango dute lehentasuna: herritarrentzat onuragarriak izango diren jarduerak egitea helburu dutenak; aurretiaz programatutakoak eta maiztasunez egiten direnak; eta udal erregistroan inskribatuta dauden elkarte edo erakundeen eskatzaileak. Horietako baldintza bakar bat beteko balitz, lehentasuna jarduera motak izango luke, eskatzaile motaren aurretik. Jarduera eta eskatzaile motek bat egingo balute, eskaera udal erregistroan noiz egin zen kontuan hartuko litzateke, ordena errespetatuz.

##### 14. ARTIKULUA.- PROZEDURA

- Urtero programatu ezin daitezkeen jarduerentzako lagapena udalaren Erregistro Orokorrean eskatu beharko da, Alkateari zuzendutako eskutitz baten bidez, jarduera egin baino hamabost egun lehenago, behintzat. Horiei buruzko erabakia Alkateak berak hartuko du, edo ordezkio legalak edo horretarako eskumena jaso duen Zinegotziak.

Gutun horretan datu hauek agertu beharko dira:

- Eskatzailearen datuak

- Beharrak

- Lagapenaren iraupena

- Egingo diren jardueren zerrenda

- Kide kopurua

- Lagapenaren helburua

- Urtebetean, ikasturte oso batean edo denboraldi luze batean egingo diren jarduerentzako lagapena lortzeko eskaera azaroaren 30a baino lehen egin beharko da, eta planifikazio oso bat eta egin nahi diren jardueren egitaraua aurkeztu beharko dira; horrela, Udalak nahikoa denboraz onetsi ahaliko du lokalen erabileraren programazio orokor bat.

Udalak eskaera guztiak aztertuko ditu, eta banaketa proposamen bat egingo du erabilgarri dauden lokalen, eskatutako denbora epeen eta irizpide hauen arabera:

1.- Jardueren errentagarritasun soziala eta kulturala.

2.- Lehenetsuna izango dute elkartearen udal erregistroan dauden taldeek eta elkarteek, ez oso egituratuak dauden beste taldeen aurretik.

3.- Lehenetsuna izango dute Udaletxeak eta beste estamentuek sustatu dituzten jarduerak.

4.- Ezingo zaie lokala laga irabazi asmoa duten erakundeei, ez bada oso ongi arrazoitutako salbuespenei.

5.- Ezingo dira lokalak laga ez hirugarren pertsonak erabiltzeko, ez talde edota elkarte batek sustatutako irabazi asmoa ezkutatzeko jarduerak egiteko, elkarte edota talderen batek frogatu beharrekoa. Egoera horietakoren bat ematen ari dela ondorioztatuko da baldin eta elkartearen izaerarekin eta helburuekin bat ez datozen jarduerak ezkutatzeko badituzte. Hauek izango dira horren adierazle: jarduerak errepikatzea, ekonomikoki onura jaso dezaketen pertsonak etengabe berberak izatea, jarduera horren parte-hartzaile taldearen zabalera eskasa izatea eta taldearen edota elkartearen izaerarekin eta helburuekin bat ez datozen jarduerak antolatzea; nolahi ere, kasuan kasuko balorazioa egingo da.

Lagapenen programa Alkatezaren berak erabakiko du, edo bere ordezkari legalak edo horretarako eskumena jaso duen Zinegotziak. Lokal bakoitzaren sarreraren iragarki ohol bana jarriko da, non jarduera egitaraua zintzilikatuko den.

## 15. ARTIKULUA.- LAGAPEN-HARTZAILEAREN BETEBEHARRAK

Hurrengo artikuluan ezartzen diren betebeharrak orokorrean gainera, lagapen mota hauen titularrek honako egingizun hauek bete beharko dituzte:

- Tasa ordaintzea, "Udal instalazioak erabiltzeko tasa arautzen duen ordenantza fiskala" agiriaren ezarritakoa.

- Jarduera adingabeak egiten badute, beti egongo da haien ardura hartuko duen nagusi bat.

- Jarduera mota jakin batzuen kasuan aseguruaren beharrezkoa balitz, argi adierazi beharko da.

- Kalterik balego, lagapenaren titularraren kontura izango dira.

- Ezingo da jarduerentzako materiala pilatu lagapen-hartzaile bakoitzarentzako ezarri den espaziotik kanpo, eta partekatzen den eremua libre geratu beharko da.

Lokalak erabiltzeko baimena baliogabetu daiteke gunearen erabilera okerra bada, lagapenerako kausa den jarduera arrazoirik gabe aldatzen bada, istilu edo jokabide ezegokia gertatzen bada eta araubidea betetzen ez bada; baita, orokorrean, erregelamendu honetan adierazi diren baldintzak nolabait hausten badira ere.

## V. TITULUA.- FUNTZIONAMENDURAKO ARAU OROKORRAK

### 16. ARTIKULUA.- FUNTZIONAMENDURAKO ARAU OROKORRAK

Lokalak erabiltzeko lagapen orok, iraunkorrek nahiz aldi baterako direnek, honako arau hauek bete beharko dituzte:

16.1.- Lokalak erabiltzeko eskubidea hori arautzen duten arauak onartzea dakar, eta horiek ez betetzeak zuzenean ekarriko du erabiltzeko eskubidearen galera.

16.2.- Lokal bakoitzaren sarreran horren edukiera adieraziko da, eta segurtasuna dela eta, edukiera hori ezingo da inolaz ere gainditu.

16.3.- Jardueraren arduradun bat egon dadin eskatuko du beti Udalak, eta arduradun horrek bere gain hartuko ditu, kasuan kasu: ordutegiak, jarduera bukatu eta gero zaborra biltzea, garbiketa, jarduerak sortutako hondakinak biltzea, argien kontrola, ur txorrotak, eta abar. Kontuan hartu behar da lokala txukun eta modu onean geratu behar dela, beste elkarteek erabil dezaten.

16.4.- Lokaletan egiten den jarduera orok horri dagokion materiala erabili beharko du, eta ezingo ditu itxuraldatu lokalaren altzariak eta eraikina bera.

16.5.- Debekatuta dago substantzia psikotropikoak kontsumitzea, erretzea, edari alkoholdunak sartzeara eta janaria sartzeara, baldin eta jarduerak hala eskatzen ez badu eta aurretik udalak horretarako baimena eman ez badu. Debekatuta dago, halaber, lokaletan animaliak sartzeara (txakur gidariak salbu).

16.6.- Alkoholen edo beste drogen eraginpean egotearen itxura duten pertsonak ezin izango dute lokalean sartu.

16.7.- Lokaletan ezin izango da jarri tabakoa edota edari alkoholdunak kontsumitzeko deia egiten duen iragarkirik.

16.8.- Udal lokaletako jarduerari buruzko iragarkirik egiten bada, beti adieraziko da bertan Udalak laguntza eman duela.

16.9.- Ezin izango da kartelik edota liburuxkarik jarri Udalaren baimenik gabe.

16.10.- Inolaz ere ezin izango da lokalak erabili beste elkarteen edo taldeen erabilera partekatua eragozten duen jarduera iraunkorrik egiteko.

16.11.- Udal erregistroan ageri diren Elkarteek baino ezingo dituzte iraunkortasuna duten jarduerentzako (lantegiak, ikastaroak...) baimena eskatu eta horiek egin.

16.12.- Lagapen-hartzaileek ezin izango dituzte lokalak erabili helburu politikoekin.

## 17. ARTIKULUA.- ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Lagapen iraunkorreko titularren elkarteek aseguru-poliza bat kontratatu beharko dute, lagapenak irauten duen denbora guztirako; horrek estali behar ditu bai lapurreta, sute edo delakoagatik kaltetu daitezkeen lokaletako ondasunak, bai erantzukizun zibila, erabiltzaileek hirugarrenoei eragin ahal dizkieten kalteak eta galerak direla eta. Lagatzen den lokal bakoitzarengatik gutxienezko estaldura bermatu beharko da, 60.000 euro ezbeharreko, hain zuzen.

Aldi baterako egiten diren lagapenen kasuan, aseguru hauek kontratatu beharko dira:

- Haurrekin egiten diren jarduerak aseguru espezifikoak izango dituzte, eta horien ardura duten taldeek ordainduko dituzte.

- Jardueraren maila dela eta, aseguru espezifikoren bat eskatzen duen jarduera antolatzen bada, aipatutako jarduera egiten duen taldeak kontratatu beharko du aseguru jakin hori.

## VI. TITULUA.- ZEHAPEN-ARAU BIDEA

### 18. ARTIKULUA.- ARAU-HAUSTEAK

Lokalen lagapen-hartzaileek arauak hautsiko dituzte baldin eta beren jokaerek erregelamendu honetan ezartzen diren arauak hausten badituzte, eta honako sailkapen honen arabera:

\* Arau-hauste arina: Erregelamendu honetan larritzat edo oso larritzat jotzen ez diren gainontzeko guztiak.

\* Arau-hauste larria:

- Kalteak eta hondatzeak eragitea eraikinean bertan edota lokaleko altzarietan edo ondoko lokal eta eraikinetan.
- Lokalean edari alkoholodunak edota beste edozein droga mota sartzea.
- Aipatutako eremuetan pertsonak gutxiestea edota iraintzea.
- Irabazi asmoak dituzten jarduerak egiteko debekua ez betetzea, Erregelamenduan azaltzen den bezala.
- Arau-hauste arinetako bat errepikatzea, hiru aldiz, behintzat.
- Jendaurreko Ikuskizun eta Sailkatutako Jardueren Araubide Juridikoari buruzko urtarrilaren 8ko 1/1998 Legea hausten duten jarduerak egitea.

\* Arau-hauste oso larria: Pertsonen askatasunari, osotasun fisiko edo moralari eraso egiten dion arau-haustea, baita arau-hauste larri bat errepikatzea ere, bi aldiz, behintzat.

#### 19. ARTIKULUA.- ZIGORRAK

Aurreko artikuluan zehaztutako arau-hausteak egiten dituzten pertsona edota taldeei honako zigor hauek jarriko zaizkie, kasuan kasuko espedientearen egin eta gero:

- Arau-hauste arina: Bostehun (500,00.-) eurorainoko isuna, eta hiru hilabetez lokala erabiltzeko debekua.
- Arau-hauste larria: Bostehun euro eta zentimo batetik (500,01.-) mila eta bostehun (1.500,00.) eurorainoko isuna, eta hiru hilabete eta egun batetik bi urtera bitarteko epean lokala erabiltzeko debekua.
- Arau-hauste oso larria: Mila eta bostehun euro eta zentimo batetik (1.500,01.-) hiru mila (3.000,00.) eurorainoko isuna, eta lokala erabiltzeko debekua, bi urte eta egun batetik hasita, behin betiko arteko epean.

#### XEDAPEN GEHIGARRIA

Erregelamendu hau ezartzeko unean sor daitezkeen edo bertan arautu ez diren aspektu jakinei buruz sor daitezkeen zalantzak Osoko Bilkuran aztertuko dira, egoki irizten diren txosten tekniko eta juridikoak egin ondoren; horien adostasunek administrazio-bideari amaiera emango diote, eta horien aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa jarri daiteke, jurisdikzio hori arautzen duen Legeak aurreikusten duenaren arabera. Nolanahi ere, interesatuek aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez dezakete, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 116 eta 117 artikuluek ezartzen dutenez.

#### AZKEN XEDAPENA

Erregelamendu hau indarrean sartuko da testu osoa eta behin betikoa Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean, eta indarrean egongo da horren aldaketa edo indargabetzea adosten den arte.

Berangon, 2011ko martxoaren 2an.

ALKATEA, Maria Isabel Landa Gaubeka.